



# LIBURVAK

IBON SARASOLA, *Euskal Literaturaren Historia*. Lur Editoriala. Donostia, 1971.

Liburu honen kritika aski luzea argitaratu nuen «Anaitasuna» aldizkariaren 216 eta 217 zenbakietan (1971ko abuztuaren 15 eta 30ekoak). Orduan esandakoetatik ezer gutti izango nuke aldatzekorik. Baina argitu beharra dut, literatura kritiketatik nahiko urruti dabilzaten zenbaitek uste izan zutela I. Sarasolaren obrari egurra eman nahirik edo idatzi nuela. Nere gogoia oso urruti egoan holako asmoetatik; neronen eritzi eta ikusmoldeak hain gordin agertzen bantuen, adiarazpen zintzoak hala eskatzen zidalako izan zen.

Baina, esanak esan, I. Sarasolaren *Euskal Literaturaren Historia* oso liburu importantea zaigula gure literaturaren mugimenduen gorabeherak ezagutzeko, eta, batez ere, literaturaren ekintza bera garai bakoitzeko gizarte-ekonomien zer ikusiaz gin den lehen saioa.

Ibonek, beste literaturak aztertu diren gisa, gurea ere ekonomiazko egoeren arabera egin du bere lana. Lehena izateak berakin zituena harrizkoak bere gain hartu ditu egileak, baina guk ikastekorik aski izango dugu liburu horretan eta lanak aztertzeke metodologiaren aldetikoak ere ez gutti.

Egia esan, gure literaturaz era hortan lan sakon bat, hutsik gabekoa behinik-behin, egin ahal izateko, lehendabizi ekonomiaren historia on baten premia dugu; zeren, etxekoek eta kanpokoek egin dituzten saiaerak (orain artekoak) oso urruti daude historiako errealtateetatik. Historia bera behar bezala ez ezagutzeagatik, zabalkunderako eginak diren liburu jeneraletatik aparte, sortu digu lan askoren oinharri sendorik eza.

Historiako hutsune horren adigarri idatzi nuen «Anaitasuna» bertan 219 zenbakian (1971-9-30), lehengo kritikaren jarraipenez. Hartikulu hortan, XVIII. mendeari buruz ari nintzen, baina XVI. mendea oraindik nabarmenago azatzen zaigu, Bizkai-Gipuzkoetan, ekonomiaren aldetiko aberastasun handietan.

Gainerakoan, gizarte-literatura aburuak, Patri Urkizuren *Literatura eta kritika* izeneko liburuan oinharrituak ditu nonbait. Hala dirudi. Eta liburu horren hutsik handiena, ez dakigu zergatik, gaurko erizietaraino ez jarraitzean datza. Sozio-ekonomia bere soiltasunean begiratzetik, ekologia zientzia gizarteari aspalditik erantsia ez balego bezala. P. Urkizu, Lukács eta Sartre-ra arte heltzen zen, baina ordurako Northrop Frye-ren aburuak ere aski ezagunak ziren. Horregatik, azken lotura gabe, atzeraegi gelditzen zen Urkizuren liburua, argitaratu zen garai bertan.

Gauzak ondo egitea beti da nekeza. Hala ere, emaitza onik badakarki Ibonen liburuak.

J. S. M.

